

Logo eta webgune eraberritua du elkarteak

Wikipedian Altzari buruzko informazio gehiago agertzea izango da Altzako Historia Mintegiaren erronka

X.E

Hogeitabost urtetan Altzaren iragana berreskuratzeko lan handia egin du Altzako Historia Mintegiak. Arakatzearekin nahikoa ez, eta denen esku uztea izan da elkartearen beste jomuga nagusietako bat. Horretarako, web orria sortu zuten 1996. urtean eta horretan ere aitzindariak izan direla goraiatu du Antxon Alfaro Altzako Historia Mintegiko kideak. «Harro egoteko modukoa da Altzari buruzko lehen webgunea sortzea eta euskaraz egindako lehenengoa izatea».

Urteotan hamaika albiste, argazki eta dokumentu jarri dituzte altzatar zein herritar ororen eskura, eta, oraingoan, beste urrats bat ematea erabaki dute, *altza.net* webgunea itxuraldatuz. Leihoa eraberritzearekin batera, logo berria aurkeztu du Altzako Historia Mintegiak. «Arinagoa» dela azaldu du Alfarak. Hogeitabost urteko ibilbidea atzean utzi gabe, ukitu berria duela dio.

Elkarteari garrantzi gehiago

Webgunearen diseinu aldaketarekin, gainera, elkarte bera nabarmendu nahi dute. Alfarak adierazi duenez, «Altzaren ondarea handia da, Altzako Historia Mintegiak berak, ordea, urte hauetan guztietan material ugari pilatu du eta hura plazaratzeko garaia da».

Honela, aurreko web orriak zituene atalak bere horretan utziz, elementu berriak gaineratu dituzte. Hala nola, Facebook sarean profila ireki dute jende gehiagorengana hurbiltzeko. Fototeka atala ere badute orain, eta elkarteak egindako jarduera guztien argazkiak kontsulta daitezke bertan.

Elkarteak bezala, webgunea ere garai berrietara egokitzen jarraituko du. Hala, Wikipedian Altzako informazio gehiago jartzea da esku artean duten erronketa bat.



Elkartearen logo berria. AHM